**Esp.-kodea:** 2017SAPL0003

**U D A L   P L E N O A**
**Bilkura arrunta**

## BILKURA DATUAK

| EGUNA: | TOKIA |
|---|---|
| 2017/04/04 | Udaletxea |
| HASIERA ETA BUKAERA ORDUA | |
| 18:00 - 19:15 | |

**BILDUTAKOAK:**

Lehendakaria: María Ubarretxena Cid (EAJ-PNV)

Zinegotziak:
Ibon Arrupe Aldecocea (EAJ-PNV)
Juan Ramon Mendieta Garay (EAJ-PNV)
Ander Garay Zabaleta (EAJ-PNV)
Amaia Ceciaga Garmendia (EAJ-PNV)
Juan Karlos Garitano Ezkurra (EAJ-PNV)
Amaia Azpiazu Aramburu (EAJ-PNV)
Anuska Ezkurra Zubizarreta (EAJ-PNV)
Eneko Barberena Mondragon (EH BILDU)
Amaia Larrañaga Galdos (EH BILDU)
Eneko Fernandez Ortiz de Luzuriaga (EH BILDU)
Maialen Zabaleta Madinabeitia (EH BILDU)
Jose Luis Encinas Jose (EH BILDU)
Itxaro Artola Lizarralde (EH BILDU)
Urki Larrea Ibabe (EH BILDU)
Oscar Garcia Horrillo (PSE-EE)
Victoriano Fuentes Noguera (PSE-EE)
Anabel Legaz Canflanca (PSE-EE)
Igor Urizar Murgoitio (Baleike)
Eva Abuin Bideburu (Baleike)

Idazkaria: Amaia Gorrotxategi Zubizarreta

Beste funtzionario batzuk: Iñaki Balzategi Garai, Kontuhartzailea.

**BILDU EZ DIREN UDALKIDEAK:** Juan Luis Merino Sanabria (Irabazi Arrasate)

**BERTARATZE ETA IRTEERAK:** Bilkura hasi denetik bukaeraraino ez da bertaratze zein irteerarik izan.

**M. UBARRETXENA (Lehendakaria):** Arratsaldeon denoi, beno gutxi gorabehera zinegotzi guztiak gaude hemen, eta Plenoari hasiera ematera goaz.

## 1.- AURREKO BILKURAKO AKTA IRAKURRI ETA ONARTZEA.

2017ko martxoaren 7ko  bilkuretako akta, aho batez, onartzen da.

## 2.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA UDALAREN 2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA. (2017RBAR0009)

Indarrean dagoen aurrekontuen legean ezarritakoa betetzeko Udalbatzarrari jakinarazten zaio, Udalaren 2016ko aurrekontuaren likidazioa dela-eta 2017ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honako akordioa hau hartu zuela:

**UDALAREN 2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONARTZEKO PROPOSAMENA. (2017RBAR0009)**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udal Kontu-hartzaileak 2016eko aurrekontuaren likidazioaren berri eman du, eta zenbaki laburpena da hauxe:

**2016KO AURREKONTU EMAITZAREN KALKULUA**

| | | |
|---|---|---|
| A | Eskubide garbiak, 2016eko ekitaldiko likidazioa | 32.436.795,36 € |
| B | Onartutako obligazio garbiak, 2016 | 29.080.049,44 € |
| | | ------------------------- |
| C | 2016eko ekitaldiko aurrekontu operazioen emaitza (A – B) | 3.356.745,92 € |
| D | Deuseztatutako gastuen soberakinen obligazioak | 3.836,13 € |
| E | Deuseztatutako hondarren diru-sarreren eskubideak | -1.065.513,06 € |
| | | ------------------------- |
| F | Itxitako ekitaldien aurrekontu operazioen emaitza (D + E) | -1.061.676,93 € |
| G | 2016ko ekitaldiko aurrekontu emaitza (C + F) | 2.295.068,99 € |
| H | Doitzea: | |

**Esp.-kodea:** 2017SAPL0003

| | | |
|---|---|---|
| | H.1 - 2015ko likidazioko diruzaintzako soberakinez finantzatutako obligazio onartuak (eranskinak) | 1.869.854,03 € |
| | 2016eko ekitaldiko finantza onartua doitzea (eranskina 2) | 111.866,69 € |
| | | ------------------------- |
| | DOITZEA GUZTIRA (H.1 + H.2) | 1.757.987,34 € |
| **I** | **AURREKONTU EMAITZA DOITUA (G + H)** | **4.053.056,33 €** |

**2016KO LIKIDAZIOKO DIRUZAINTZAREN SOBERAKINA**

| | | |
|---|---|---|
| **1** | **KUTXAN DAUDENAK, 2016-12-31n** | **10.430.002,55 €** |
| 2.1 | Ekitaldi arruntean kobratzeke daudenak | 2.780.568,09 € |
| 2.2 | Itxitako ekitaldietan kobratzeke daudenak | 1.989.255,79 € |
| 2.3 | Aurrekontukoak ez diren zorrak | 261.290,06 € |
| | | ------------------------- |
| **2** | **KOBRATZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA (2.1+2.2+2.3)** | **5.031.113,94 €** |
| 3.1. | Ekitaldi arruntetako hartzekodunak | 1.968.032,25 € |
| 3.2 | Itxitako ekitaldietako hartzekodunak | 80.850,00 € |
| 3.3 | Diru-sarreren aurrekontuaren hartzekodunak | --- € |
| 3.4 | Aurrekontukoak ez diren hartzekodunak | 1.942.307,19 € |
| | | ------------------------- |
| **3** | **ORDAINTZEKE DAUDEN SALDOAK GUZTIRA (3.1 + 3.2 + 3.3 + 3.4) (*)** | **3.991.189,44 €** |
| | | ------------------------- |
| **4** | **DIRUZAINTZAKO SOBERAKIN GORDINA (1+2-3)** | **11.469.927,05 €** |
| **5** | **DOITZEA:** | |
| | - AFEKTATUTAKO FINANTZAKETA (Ikusi eranskina-3.a) | -270.713,46 € |
| | - ZALANTZAZKO KOBRAKETA (Ikusi eranskina – 4) | -2.193.813,02 € |

| | | |
|---|---|---|
| | - KUPOAREN ARRISKUA | -741.439,88 € |
| | | ------------------------- |
| | DOITZEA GUZTIRA (5) | -3.205.966,36 € |
| **6** | **DIRUZAINTZAKO SOBERAKINA, GASTU OROKORRETARAKO DOITUA (4-5)** | **8.263.960,69 €** |

Bestalde, udal sailek hainbat eskaera egin dituzte, 2016ko aurrekontuko gastu kate jakin batzuk (berariazko finantzaketa duten bigarren kapituluko gastuak, inbertsioen kapituluko kontu-sailez gain), onartutako obligazio aldira iritsi ez direnak (onartutako faktura edo ziurtagiria), diruzaintzako soberakinaren kontura finantzatu daitezen. Gastu kate horien xehetasuna agertzen da diktamen honen eranskin moduan, eta 3.812.045,92 €-ko zenbatekoa da (eranskineko 5. agiria, geroko ekitaldien konturako konpromiso kredituak deskontatu eta gero).

Eskaera horiei dagokienez, udal kontu-hartzaileak adierazi du ez dagoela legezko trabarik edo eragozpenik eskatutako txertaketa onartzeko, kapital eragiketei dagozkien gastuak baitira edo diru-sarrera espezifikoaz finantzatzen direlako eta, halaber, aplikatzekoa den lege araudiak (21/2003 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen Aurrekontuena, 2/2012 Lege Organikoa, Aurrekontua Egonkortu eta Finantzari Eustekoa, 1/2013 FA, Gipuzkoako Toki Erakundeen aurrekontua egonkortu eta finantzari eustekoari buruzko finantza babesaren eskumena garatzen duena) nahiz 2016ko aurrekontua betetzeko arauek eskatutako baldintzak betetzen baitituzte.

2016ko aurrekontuaren likidazioaren proposamenari buruz eta 2017ko aurrekontura kredituen zerrenda txertatzeari buruz, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordeak, aho batez, aldeko txostena eman du eta honako akordio proposamena egiten dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

1) 2016ko udal aurrekontuaren likidazioa onartzea, udal kontu-hartzaileak egindako zenbaki laburpenaren arabera.

2) Gipuzkoako Foru Aldundiari likidazio espedientearen kopia bidaltzea, lehen aipatutako Foru Arauak, 49.5 artikuluan, jasotakoa betez.

3) Onartzea 2017ko aurrekontuan sartzea 2016ko aurrekontutik datozen kredituko zenbait gastu- kreditu, 3.812.045,92 euroko kopuruagatik, honekin batera doan zerrendaren arabera. Horietatik, zati bat, zehazki 270.713,46 euro, lotutako diru-sarreren bidez sortutako diruzaintza gerakinaz finantzatuta eta, gainerakoa, 3.541.332,46 euro, 2016ko aurrekontuaren likidaziotik datorren gastu orokorretarako diruzaintzako gerakinaz finantzatuko litzateke.

4) Indarrean dagoen aurrekontu araudian jasotakoa betetzeko, akordio honen berri ematea Udalbatzarrari, egingo den hurrengo bilkuran, adieraziz 2016ko aurrekontuaren likidazioa (kupoaren arriskua estali eta gero) eta 2017rako kredituen txertaketa (akordio honetako 3. zenbakian aurreikusia) onartu eta gero, oraindik egongo litzatekeela gastu orokorretarako diruzaintzako gerakin kopuru bat erabili gabe, 4.722.628,23 eurokoa.”

**3.- UDALBATZARRARI JAKINARAZTEA ITURBIDE EGOITZAREN 2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOAREN ONARPENA.(2017RBAR0010)**

Indarrean dagoen aurrekontuen legean ezarritakoa betetzeko Udalbatzarrari jakinarazten zaio, Iturbide Egoitzaren 2016ko aurrekontuaren likidazioa dela-eta 2017ko martxoaren 30ean egindako bilkuran, Tokiko Gobernu Batzarrak honako akordio hau hartu zuela:

**ITURBIDE EGOITZAKO 2016ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ONTZAT EMATEKO PROPOSAMENA. (2017RBAR0010)**

Tokiko Gobernu Batzarrak, aho batez, Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

"Bere onespenerako 2016ko aurrekontuaren likidazioari buruzko Iturbide Egoitzako Lehendakariaren proposamena (Zuzendaritza Batzordetik berrestekoa) ezagutu du Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordeak. Bertan likidazioa honako laburpen numerikoarekin planteatzen da:

**1.- 2016ko AURREKONTUAREN EMAITZAREN KALKULUA**

| | | |
|---|---|---|
| A | 2016 ekitaldian likidatutako eskubide garbiak | 3.241.160,73 |
| B | 2016 ekitaldian onartutako obligazio garbiak | 3.241.160,73 |
| C | 2016ko EMAITZA PRESUPUESTARIOA | 0,00 |

**2.-2016ko LIKIDAZIOAREN TESORERIAKO SOBERAKINA**

| | |
|---|---|
| 1.- 2016-12-31N KAXA ETA BANKUEN SALDOA …………….. | 173.606,58 |
| 2.1. Ekitaldiko Kobratu gabeko sarrerak | 166.762,76 |
| 2.2. Aurreko ekitaldietako kobratu gabeko sarrerak | 0,00 |
| 2.3. Aurrekontuz kanpoko zordunak | 0,00 |
| 2. KOBRATZEKO DAGOEN SALDOA GUZTIRA …………………… (2.1.+2.2.+2.3.) | 166.762,76 |
| 3.1. Ekitaldiko ordaindu gabeko gastuak | 215.627,99 |
| 3.2. Aurreko ekitaldietako ordaindu gabeko gastuak | 0,00 |
| 3.3. Aurrekontuz kanpoko hartzekodunak | 124.741,35 |
| 3. ORDAINTZEKO DAGOEN SALDOA GUZTIRA (3.1.+3.2.+3.3.) | 340.369,34 |

| | |
|---|---|
| 4. TESORERIAKO SOBERAKIN GORDINA (1+2-3) | 0,00 |
| | |
| 5.1. Finantzaketa afektaturik duten gastuak | 0,00 |
| 5. AJUSTEAK (5,1,+5,2,) | 0,00 |
| | |
| 6. TESORERIAKO SOBERAKIN AJUSTATUA (4-5) | 0,00 |

2016ko kontuen itxiera orekatzeko, Arrasateko Udalak ez du diru ekarpenik egin behar izan, hasieran aurreikusitakoa 49.241,48 €-koa bazen ere. Are gehiago, Iturbide Egoitzak Udalaren alde 174.185,21 €ko diru ekarpena egin du, urteko sarrera eta irteeren arteko emaitza presupuestarioa orekatzeko.

Diru hori, aurreko ekitaldiekin alderatuta, neurri haundi batean behintzat, Foru Aldundiak onartutako tarifen eguneraketatik eta defizita estaltzeko egin duen ezohiko ekarpenetik sortu da, eta horrek balio izan du Udalak Iturbideko jardueran finantzatzen dituen zeharkako gastuak eta Udalak egindako inbertsioen amortizazioak portzentai baten estaltzeko.

Ogasun, Diruzaintza eta Ondare Batzordeak, aho batez, Tokiko Gobernu Batzarrari ITURBIDE EGOITZAko aurrekontuaren likidazioa onartzea proposatzen dio."

**4.- PROPOSAMENA 2017KO AURREKONTUAREN KREDITU ALDAKETAREN ESPEDIENTEA ONARTZEKO, 2016 EKITALDIKO LIKIDAZIOATIK LORTUTAKO DIRUZAINTZA GERAKINAREN KONTURA.(2017DKRE0001)**

Tokiko Gobernu Batzarrerako diktaminatuta, 2017ko martxoaren 28an egindako bilkuran Ogasun, Diruzaintza eta Ondarearen batzordeak aldeko txostena eman dio udalaren 2016ko aurrekontuaren likidazioa onartzeari. Beharrezkoak diren doikuntzak egin eta gero, 8.534.674,15 euroko diruzaintza gerakina lortu da aipatu likidaziotik, eta horietatik 270.713,46 euro dagokio finantzazio lotua duen gerakinari, eta gainontzekoa, 8.263.960,69 euro, gastu orokorretarako diruzaintza gerakinari. Horrekin batera eta diruzaintzako gerakinaren kontura, proposatu da onartzea 3.812.045,92 euroko kreditu txertaketa. Beraz, kreditu txerkaketa onartu ondoren, oraindik ere gastu orokorretarako doitutako diruzaintzako gerakina, erabiltzeke gelditu den kopurua, zenbatu da 4.722.628,22 euroan.

Aipatutako diktamena espero da onartzea 2017ko martxoaren 30eko Tokiko Gobernu Batzarrean, eta gerakina kopuru esanguratsua den neurrian, eta gastuen kudeaketa eta planifikazio egokiaren helburuaz, proposatu da lehenbailehen onartzea gerakinaren banaketa eta erabilera. Horretarako, Ogasun, Diruzaintza eta Ondarearen batzordeburuak banaketa proposamena planteatu du batzordean, aztertu dadin.

Proposamenean aurreikusten da, alde batetik, zenbait proiektutarako kontsignazioa sortzea/handitzea, besteen artean proiektu hauetan: Musakolako igerilekuen klimatizazio obrak, Artabilla baserrirako bidea konpontzea, Zeharkale Estaliko pisu berri bat erostea, Etxezarretako

lursailak erostea, San Antolingo Eskoletan argindar transformadorea lekuz aldatzea eta Uribarri etorbideko urbanizazio obrak; guztira 1.191.000 euroko kopurua. Bestetik, likidazioan txertatu ezinka gelditu ziren hainbat gasturi aurrekontu estaldura emateko, beharrezko ikusi da Kreditu Globalerako kontu sailari ematea dotazio osagarri bat, 90.000 euroan. Bukatzeko, Makatzenako igogailua, Aprendices/Musika etxea eraikina birgaitzeko obrak eta Zerrajerako erlojua/Kulturola proiektuetan, aurrezki izaeraz, eta gobernu taldeak, legealdi honetan aipatu proiektuekiko duen lehentasunaren adierazle gisa, planteatu du 3.420.000 euroko dotazio osagarri bat. Gehikuntza horiek guztiek 4.701.000 euroko kopurua ekarriko dute.

Proposamen horiek osotasunean onartuz gero, ia-ia ehuneko ehunean erabilita geldituko litzateke gerakina, erabiltzeke geldituko den kopurua 21.628,22 euro bakarrik izango baita. Gainera, horrek esan nahi du 2017ko aurrekontuak, hasieran onartutako kopuruei buruz, aldaketarik gabe gauzatuko balira, 2017ko gastu eta sarreren itxiera orekatua lortzeko beharrezkoa izango litzatekeela ekitaldian eskatzea 376.808,22 euroko mailegu berri bat (aurrekontuetan 398.436,44 euroko mailegu bat dago aurreikusita).

Hori horrela izanik, Ogasun, Diruzaintza eta Ondarearen batzordeak onargarria ikusten du 2016ko likidaziotik sortutako gerakina erabiltzea planteatu den kopuruan, ulerturik 2017ko aurrekontuaren exekuzioan desbideratze handirik egon ezean, itxiera orekatua lortu ahal dela.

Bestalde, bai kreditu txertaketarako eta, baita ere, 2016tik sortutako oraingo gerakinaren erabilerarako, 2017 ekitaldiko aurrekontuaren egonkortasunaren helburua betetzeari buruz, kontu hartzaileak honen berri ematen du:

Udalaren osoko bilkurak, 2016ko abenduaren 20an egindako bilkuran, 2017ko Aurrekontu Orokorrak onartu zituenean, 1/2013 Foru Arauak, garatzen duena finantza tutoretzaren eskumena Toki entitateen Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruz, eta 2016ko azaroaren 8an Diputatuen Kontseiluak onartutako jarraibideek 2017 ekitaldirako finkatu zituzten helburuak, aurrekontu egonkortasunaren, zorraren eta gastu erregelaren helburuei dagokienez, udalak horiek bete bazituen ere, 2016ko kontuen itxieraren testuinguruan hartutako akordioekin (kreditu txertaketa eta orain proposatzen den gerakinaren erabileraz), egonkortasunaren helburua ez litzateke beteko.

Beraz, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruz finantza tutoretzaren eskumena garatzeko, 2016rako jarraibideen 1. erregelak ezarritakoaren arabera, Arrasateko Udalak ez duenez betetzen egonkortasunaren helburua, finantza eta ekonomia plan bat egin eta onartu beharko luke, egoera urtebeteko epean zuzenduko dela bermatuko lukeen plana, hain zuzen ere.

Hala ere, zenbait kasutan (ez betetzea diruzaintzaren gerakina erabiltzeagatik denean, horien artean), planaren ordez, komunikazio bat helarazi dakioke Udalbatzarrari, kontu hartzailetzak izenpetua, txosten batekin batera, aztertu, ebaluatu eta egiaztatzen duena Arrasateko Udal Administrazioaren finantza iraunkortasuna.

Hori dela eta, kontuan hartuta aipatu helburu legalak ez betetzearen arrazoiak datozela diruzaintzaren gerakina erabiltzetik, gainera, neurri handi batean, aurrezki izaerako kreditu erreserbak planteatuta eta, ezuste handiak izan ezik, hurrengo urteetarako ez dela ikusten arrisku handirik Udalaren finantza iraunkortasuna desagertzeko, 2016an zorraren maila oso baxua izan baita (% 4,59 bateratutako baliabide arruntei buruz), ezarritako mugatik (% 80) oso urruti, eta egonkortasunari dagokionez, 2016 ekitaldiko likidazioan ezarritako muga bete dela 3.774.807,63 euroko marjinarekin, eta 2017 ekitaldirako ere, 2016ko gerakinaren erabileragatik izango ez balitz, beteko litzatekeela helburu legala (aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetako sarrerak ≥ aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetako gastuak izatea).

Beraz, ez da beharrik ikusten ekonomia-finantza plan bat onartzeko eta, haren ordez, osoko bilkurari komunikatu behar zaio 2016ko ekitalditik sortutako diruzaintzako gerakinaren erabileragatik gertatu dela egonkortasunaren helburua ez betetzea; aldi berean, adierazita uztea bermatuta dagoela Arrasateko Udal Administrazioaren finantzari buruzko jasangarritasuna, ez bada gertatzen ezuste edo aldaketa handirik.

Kontuan hartuta hori guztia eta aztertuta kreditu aldaketari buruz jasotako banaketa proposamena Ogasun, Diruzaintza eta Ondarearen batzordean, onargarriak direla iritzirik, EAJ/PNV udal taldeko bi ordezkarien eta PSE-EE udal taldeko ordezkariaren aldeko botoekin, eta EH BILDU, BALEIKE eta IRABAZI udal taldeetako ordezkarien kontrako botoekin, eta bigarren bozketan emaitza errepikatu denez, batzordeburuaren kalitateko botoarekin, batzordeak akordio hau hartzea proposatzen dio osoko bilkurari:

1.- Hasierako onespena ematea 2017 ekitaldiko aurrekontuaren kreditu aldaketaren espedienteari, kreditu gehigarrien erregimenean, zenbaki laburpen honekin:

A- GASTU GEHIKUNTZA

| | |
|---|---:|
| V. Kap. – Kreditu Globala | 90.000,00euro |
| VI. Kap. – Inbertsioak | 4.611.000,00 euro |
| **GASTU GEHIKUNTZAK GUZTIRA** | **4.701.000,00 euro** |

B- FINANTZAKETA –

**B.1 – 2016KO DIRUZAINTZAKO GERAKINA 4.701.000,00 euro**

2.- Aipatu espedientea jendaurrean jartzea 15 egun balioduneko epean, interesdunek aztertu eta egoki iritzitako erreklamazioak aurkezteko.

3.- Jendaurreko epean ez bada aurkezten inolako erreklamaziorik, hasierako akordioa kontsideratzea behin betikoz onartuta.

4.- 1/2013 Foru Arauaren 5. artikuluak eta Gipuzkoako Diputatuen Kontseiluak 2016ko azaroaren 8an onartutako jarraibidearen 1. arauak ezarritakoa betetzeko, Udalbatzarrari komunikatzen zaio

2017ko aurrekontuek, likidazioko kreditu txertaketa eta kreditu gehigarri hauek onartu eta gero, ez dutela betetzen helburua egonkortasunari buruz. Baina ez betetze horren arrazoia denez diruzaintzako gerakinaren erabilera eta udal kontuen finantza iraunkortasuna ez denez arriskuan ikusten, Udalbatzarrari egindako komunikazio honek ekonomia eta finantza plana ordezten du, oreka berreskuratzeko legeak eskatutakoa.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Interbentziorik?

**I.URIZAR (BALEIKE):**

Kaixo Arratsaldeon guztioi. Lehenengo gauza gure taldeak proiektu hauen aurka ezer ez duela adieraztea da soberakina erabiliko den proiektuen aurka baina Arrasateko herriak gure ustetan baditu beste lehentasun batzuk 5.000 €tako kopurua eraikuntza enpresetan gastatzea baino. Urtero hainbat negoziok itxi behar izaten dute Arrasaten eta gero eta kasu gehiago heltzen ari zaizkigu ezintasunak pairatzen ari diren herritarren artean. Gure gizarte zerbitzu eredua ez baida haietara iristen gero eta Arrasatear gehiago daude gizarte laguntzaren beharrean.

Adin txikikoen artean eskuhartzeak, langabeentzako formakuntza gero eta herritar gehiago dago bizi baldintza xume eta prekarioetan 5 milioi hauek oso lan ona egin ahal izango lukete enplegu plan berriak uztartzen edo baliabide urriko arrasatearrak laguntzen baina 5 milioi hauetatik gobernu taldeak ez du xentimo bakar bat erabiliko langabezia konpontzen. 5 miloi hauetatik ez du xentimo bakar bat gizarte ezberdintasunei aurre egiten erabiliko, 5 milioi hauetatik gobernu taldeak ez du xentimo bakar bat genero ezberdintasuna bukatzera bideratuko, 5 miloi guzti hauek gobernu taldeak eraikuntza enpresak poltsikora bideratzera erabaki du. Hau ahal da Arrasatek merezi duen politika.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Beste interbentziorik?

**E.BARBERENA (EH-BILDU):**

Arratsaldeon denoi. EH-BILDUtik ez dugu nolabait 4.700.000 hauekin finantzatutako diren edukien inguruan gehienekin ados gaz. Egia esan zaila da Musakolako igerilekuaren klimatizazioaren kontra egotea, Artabillan baserriko bidean konpontzen kontra egotea, Zeharkale estalian pisu bat erostearen kontra edota Etxezarretako lursailak erosten alde gaz hala adierazi izan dugu gainera publikoki. Hala eta be, iruditzen jaku 4.700.000 horien artean ba guk bagenituen beste hainbat proposamen ikusten genituenak egitasmoa hauek egitearekin uztargarriak zirenak ez? Zan nolabait gehitzea proposamenak eta adibidez bagenituen asmoak Hidalgobasorako, hileta zibilen gairako edota auzoetan ekimenak egiteko ez?

Guk ezezkoa eman ginun batzordean eta ezezkoa emango dugu gaur plenoan ahalegindu garelako esertzen honi buruz hitz egiteko eta esertzeko ezezko batek gure ezezkoa ekarri dau. Gu horri ari gara ematen ezetz eta herritarrei hori adierazi nahi genion.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Beste interbentziorik?

**A.EZKURRA (EAJ-PNV):**

Bai arratsaldeon guztioi mahaikideok, alkate andrea, hemen komunikabideetako lagunak, herritarrak. Bueno ez noia berriz errepikatzera soberakin 4.700.000 nora dihoan Amaiak azaldu dau baina egia da soberakinak izan dutela herritarrak pixkat irakurtzen danean guztia agian ez da oso argi geratzen. Gure asmoa izan da udal gobernuaren asmoa da, hau da, soberakina hartzen da eta egiten dituguna da bi poltsa ezberdin bata udal gobernu honek hasieratik udaletxe honetara sartu ginenetik dauzkagun konpromezu eta lehentasunei hoiei bideratuta eta hori egia da dihoa Aprendices, Kulturola, Makatzenako eraberritzea eta egia da horra dihoala aurrekontu handi bat egia da 3 milioi eurotakoa baina beti izan da gure konpromezua, beti izan da gure lan ildoa kultur proiektu hauetara dirua bideratzea eta egiten duguna da etxe guztietan egiten dana joan diru bat aurrezten proiektu hau bideratu behar denean, hau da, 2017an, 18an,19an ba ahalik eta gutxien zorpetzea eta egiten duguna da etxe guztietan egiten dana diru bat aurreztu poltsa bat egiten dugu diru horiekin ez zorpetzeko udaletxe hau ez zorpetzeko eta entzun diran jasangarritasun, egonkortasun, iraunkortasun maila bat jarraitu deigun egia da udaletxe honetara sartu ginan eta hori zan udaletxe honen maila iraunkorra, jasangarria egia da eta guk ere horrela jarraitu dadin nahi dugu eta orduan egiten duguna da zatitxo bat aurreztu eta beste bat ba zuek esaten duzuena ezezkoa eman nahi ez diozuten proiektu honi baina gaur ezezkoa emango diozutena direla ba bai aurreko udalbatzan esan genuena San Antolin herri eskolako transformadore hori kentzearena, Etxezarretako mendia erostearena non oposizioko zuen proposamena izan bat zana eta gu konprometitu ginen baiezkoa eman genuen gai horiei eta egia beste diru zati bat 1.191.000 € dihoaztela konpromezu hauetara 2017ko aurrekontuan gehitu deixen gai honi aurre egiteko eta horregatik guk dakarkigu mahai honetara udalbatza honetara dakarkigun kontuak dira horiek, dira goazen poltsa bat egin aurrezteko konpromezuzko lehentasunezko proiektuei aurre egiteko eta beste 2017an gai asko zuekin oposizioko alderdiekin adostutako proiektuei aurre egiteko. Hori da besterik ez. Mila esker.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Beste interbentziorik? Oscar.

**O.GARCIA (PSE-EE):**

Arratsaldeon guztioi. Haber a mí me surge una pequeña duda con la intervención que ha tenido el compañero Igor que es que no se le destina ni un euro más por ejemplo a creación de empleo cuando sabes perfectamente que no es verdad, cuando los presupuestos ha habido una subida increíble en temas de empleo, yo te recuerdo hablo de memoria 100.000 € el año pasado era bastante menos entonces yo creo que el compromiso de este equipo de gobierno con la creación de empleo está fuera de toda duda.

Respecto al tema de asuntos sociales que queda fuera mucha gente que hay muchas que no llegamos estoy completamente de acuerdo contigo es cierto a mí me gustaría tener no 5 sino 50 millones para hacerles frente también es cierto que tú estuviste siendo presidente de esa comisión 6 meses y no propusiste nada. Absolutamente nada.

Entonces me llama muchísimo la atención que ahora desde la oposición tengas muchas ideas son bienvenidas, las escucharemos atentamente y nos gustaría oírlas que está muy bien dar un titular y decir, no habéis dedicado ni un euro a esto, no habéis dedicado un euro a lo otro pero no has dicho a que lo dedicarías tú.

No has puesto un proyecto encima de la mesa y eso es lo que me alarma en cierta medida dicho esto los brazos abiertos, deseando escuchar propuestas y desde luego todo lo que sea por el bien el pueblo de Arrasate y para sus habitantes lo recibiremos muy cordialmente y lo ponemos en marcha sin ninguna duda, sin ninguna duda y como ya ha dicho Anuska también me llama la atención que no se vaya a aprobar esta liquidación cuando dentro de esos proyectos van varios que nos han hecho llegar vosotros como es Etxezarreta. Os acordáis en diciembre las reuniones que teníamos en presupuestos que queréis comprar Etxezarreta yo lo digo claramente yo no era a favorable de comprar Etxezarreta. Yo no era a favorable de comprar Etxezarreta pero me convencisteis, me dijisteis que era interesante y yo hice mis indagaciones y bueno vale de acuerdo ningún problema.

La capacidad de dialogo de este gobierno está demostrada sobradamente demostrada otra cosa es que lo que se nos proponga pues sean cosas que no queramos hacer pues porque no van en nuestro ADN experimentos con la gaseosa se suele decir experimentos con la gaseosa este equipo de gobierno serio es un equipo de gobierno que trabaja y prueba de ello son los 4 millones y pico que nos han restado por una buena gestión del año pasado. Te puede gustar más o menos Igor pero es así.

El transformador de la escuela Eneko lo has dicho muy bien no podéis estar en contra yo creo que nadie puede estar en contra Etxezarreta, el transformador, Artabilla yo creo que lo que pasa es que vosotros tenías más cosas para meter y no habéis podido meterlas o no ha habido ese entendimiento para poder meterlas pero es que no nos olvidemos que esto es una liquidación no son presupuestos. Esto no es una negociación es pleno derecho del equipo de gobierno el decir a que se va a destinar ese dinero llegará octubre o noviembre volveremos a sentarnos encima de la mesa podréis volver a poner proyectos encima de la mesa y seguramente más de uno y más de dos será aceptado por este gobierno. Pues porque yo creo que si una cosa esta bien dicha y bien hecha y merece la pena no hay ninguna razón para echarla para atrás. Nada más.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Beste interbentziorik? Eneko.

**E.BARBERENA (EH-BILDU):**

Nik uste dut berriz errepikatzea dagokidala 4.700.000 €tik 1.200.000 direla aipatu diren proiektu horrek tartean gure ekimen besteak beste onartu zan Etxezarreta ez? kasu honetan Igorri esan diozuna guri ez digu balio ze guk bilatu genuen elkarrizketarako aukera hori eta ez genuen aukera izan hor arte. Gero

azkenean zuk esan duzu ez gobernuaren disposizioa soberakina egitea orduan diru poltsa honek badu bere entitate propioa aurrekontuekin lotu daitekeena edo ez baina bere entitate propioa adibidez argindar transformadorea azken konpromisoetako bat inkorporatu zaio.

Guk azkenean gure proposamen honek egia da aurrekontuak egongo dira baina bilatzen genuena zan nolabait hobekuntza bat egitea bagenuen disposizio bat horretarako ez? ba ez da aukera hori egon guk biak jarraituko dugu aukera hori egon dein etorkizun baten ze gu be nahi dugu ekarpena egin urtean behin baino saio gehiagotan.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Beste interbentziorik? Igor.

**I.URIZAR (BALEIKE):**

Bueno primero responder a Oscar no sé si merece mucho la pena como el propio Eneko ha dicho hablar de capacidad de dialogo cuando desde el minuto uno el presidente de la comisión de hacienda nos dice que el sobrante es innegociable pues bueno me suena un poco a choteo, trabajar trabajamos propuestas para servicios sociales para los presupuestos 2017 señor Oscar y no se nos aprobó ninguno y ni se nos intentó dar un camino plasmarlas trajimos una moción sobre pobreza energética que por suerte pudimos aprobar y así un largo etc que diste por bueno prácticamente cuando le apetece o le beneficia se sienta a escuchar cuando no ni siquiera nos escucha.

Habéis hablado de esos 6 meses bueno en 6 meses tuve que trabajar harrera protokoloa, estuve trabajando con el tema de los menores pero en el momento en el que propuse unos presupuestos pues que ocurrió que este gobierno una vez más cerró la puerta. Entonces aquí está bien que digamos una cosa cuando los hechos han sido completamente diferentes y has dicho que te encantaría fueran 50 y no 5 para destinarlos a servicios sociales bueno pues ni un céntimo del sobrante va a servicios sociales a asuntos sociales no veo cara de que eso te preocupe.

Anuskari galdera bat zein irizpide jarraitu zuen nondik aurreztu eta non jarri erabakitzeko?

**A.EZKURRA (EAJ-PNV):**

Urizar jauna badirudi azkenaldian galdera bidez hitz egiten dugula pleno honetan. Zu joaten zara ogasun batzordeetara bertan eman dute ze horrela diktaminatu da eta bertan eman dira eman beharreko azalpen guztiak eta gaur gatozena da soberakin hauen nondik norakoen inguruan hitz egitera. Beraz dena dela edozein duda gehiago izango bazenu ziur naiz hurrengoko ogasun batzordean ogasun horretako arduradunak erantzungo dizula.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Bozkatzera pasatuko gara.

| | | |
|---|---|---|
| **Bertaratuak** | **20** | |
| **Aldeko botoak:** | **11** | **EAJ-PNV (8) eta PSE-EE (3)** |
| **Kontrako botoak:** | **9** | **EH-BILDU (7) eta BALEIKE (2)** |
| **Abstentzioak:** | | |

Beraz, onartzen da.

**5.- LANPOSTUAREN ZERRENDAREN ALDAKETA PUNTUALA.(2017PRPT0004)**

Udal Plenoak, aho batez, Pertsonal eta Enpleguko Batzordearen ondoko diktamena onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

Udalbatzarrak, 2016ko abenduaren 20an egindako bilkuran, Udal honetako funtzionarioei eta lan kontratuko langileei erreserbatutako plazen plantilla onartu zuen, bai eta lanpostuen zerrenda ere.

Plantila, legeak ezartzen duenaren arabera, aurrekontua onartu eta gero aldatu ahal izango da, indarrean dagoen urtean, hauei erantzuteko: zerbitzu berriak ezartzea, hurrengo urtealdirako geroratzea onartzen ez duten zerbitzuak handitzea, kentzea edo hobetzea, bai eta barneko administrazio antolaketako irizpideez ere.

Bestalde, eta Lanpostuen Zerrendari dagokionez, aipatu behar da agiri hori etengabe eguneratu behar dela, berez duen izaera dinamikoarengatik eta uneoro izan dadin Udal honetako antolaketa beharren benetako adierazpidea.

Horrela dago jasota, izan ere, xedapen hauetan:

- *Real Decreto Legislativo 5/2015, de 30 de octubre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley del Estatuto Básico del Empleado Público.*
- *Ley 7/1985, Reguladora de las Bases de Régimen Local.*
- *Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales Vigentes en materia de Régimen Local,*
- *Ley 30/1984, de 2 de agosto, de Medidas para la Reforma de la Función Pública.*

Hori dela eta, Lanpostuaren Zerrendaren edukiaren hainbat hobekuntza proposatu denez gero, Enplegua eta Pertsonal batzordeak, horiek aztertuta, eta horietako batek ere ez duela udal aurrekontuetan aurreikusitakoa baino kostu ekonomiko handiagorik sortzen, udal plenoaren iritzipean jartzen du honako

AKORDIO PROPOSAMENA

1.- Puntualki aldatzea Lanpostuen Zerrenda, ondoko xehetasunen arabera:

- **'BAZeko Informazio eta Izapidetze Agentea' (139 kodea)** lanpostua, sailkapen-talde bi hauetako funtzionarioei zuzenduko zaie: (C2/C1)
- **'BAZeko Informazio eta Izapidetze Agentea' lanpostuaren 139-2 kodea** duen dotazioa diskapazitatea (%33ko minusbalioa) duten pertsonei erreserbatuko zaie.
- **'Hodi-iturgin ofiziala' (74 kodea) lanpostua** hornitzeko gutxieneko titulazio akademikoa hauxe izango da: DBH graduatua, LH 1, edo baliokidea.

2.- Aldaketa hori argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

**6.- MOZIOA, HEZKUNTZA ITUN BAT EGITEKO, ADOSTUA HEZKUNTZA KOMUNITATEAREKIN**

Juan Luis Merino Sanabria jaunak, IRABAZI-ARRASATE (Ezker Anitza-IU, Equo, Independientes) udal taldeko bozeramalea Arrasateko Udalean, Toki Erakundeetako Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Erregelamenduan xedatutakoaren babesean, mozio bat aurkezten du sartu dadin hurrengo osoko bilkura arruntean, eztabaidatu dadin eta, hala badagokio, onartu dadin

MOZIOA, BABESTEKO Hezkuntza Lege berri baten oinarrien agiria. Akordio soziala eta politikoa"

ZIOEN AZALPENA

Hainbat Hezkuntza Lege Organiko aterata, zeintzuk antolatu duten Hezkuntza Sistema (LOGSE, 1990; LOE, 2006; eta LOMCE, 2013), gizarteak eskatzen du adostasun bat, egonkortasuna emateko hezkuntza sistemari eta ziurtatzeko kalitateko hezkuntza publiko bat berdintasun eta demokrazia egoeran.

Adostasun bat, lortu ez dena PPren gobernuak LOMCE ezarrita ere, ezta ere, abian jarrita alde bakar batez Eusko Jaurlaritzak Heziberri 2020 prozesua, entzungor eginda hezkuntza komunitatearen sektoreei, hala nola irakasleen sindikatuei, gurasoen elkarteei edo ikasleei eurei. Horrek ekarri du diagnostikoa egotea urrun gure eskolak bizi duen errealitatetik eta abian jarritako formulek ez erantzutea egoki ikaskuntza prozesuaren protagonisten beharrei.

Gainera, Hezkuntza Sailak ezarritako murrizketek ez dute lagundu ezertan ere konpontzen gure hezkuntza sistemaren erronkak, eta hala nabarmendu da martxoaren 9an eta 22an hezkuntza komunitatearen mobilizazioetan.

Hortaz, beharrezkoa da planteatzea estrategia bat epe ertainera eta epe luzera, etorriko dena adostasunetik, eta adostasun hori ezin da lortu kontuan hartu barik hezkuntza komunitatea. Ez dagokio, bada, saiatzea lortzen hezkuntza itun zirriborratu bat, bakarrik bulego bileretan, non interes

partikularrak eta partidistak dabiltzan patxada batean: Uste dugu ordua dela eraikitzeko hezkuntza komunitatearekin alternatiba partekatu bat, hezkuntza eredu egonkor bat, zeinak apustu egingo duen hezkuntza publikoaren alde, zuzenbide unibertsalaren berme moduan.

Eredu bat diskriminatuko ez duena, banatuko ez duena arrazoi ekonomikoengatik, arrazoi sozialengatik, genero arrazoiengatik, desberdintasunen konpentsatzailea izango dena. Eredu bat apustu egingo duena curriculum laiko baten alde, demokratikoa, euskalduna eta inklusiboa, ikasleen prestakuntza integralaren zerbitzura, gaitasun kritikodun herritarrak egiteko, parte hartuko duena aktiboki gizartearen bizitza demokratikoan, mundu justuago eta solidarioago bat egiten.

Hezkuntza komunitatearen hainbat eta hainbat sektore dabil lanean buru-belarri 2015eko apirilaz geroztik, taldean egiteko akordio sozial eta politiko bat, sortua hezkuntza komunitatetik bertatik, alderdi politiko, sindikatu, erakunde eta mugimendu sozialekin batera, elkarrekin proposatzeko alternatiba partekatu bat, oinarria izango dena Hezkuntza Lege berri bat egiteko, egonkortasuna, kalitatea eta ekitatea emango dizkiona hezkuntza sistemari belaunaldiz belaunaldi.

Lan horren emaitza da hezkuntza lege berri baterako oinarrien agiria. Akordio sozial eta politikoa, https://goo.gl/H8w9wh, zeina bereziki kontuan hartu beharko litzatekeen parlamentuan prozesu irekian, hezkuntza itun bat lortzen saiatzeko, baldin eta alderdi politikoek benetan nahi badituzte kontuan hartu hezkuntzaren benetako protagonistak itun horren edukiak zehazteko orduan, amore eman barik pribilegioez gozatzen dutenen presioei, hala nola eliza katolikoa, edo interes ekonomikoak defendatzen dituzten presioei.

Oinarrien akordio hau egin da gizarteko taldeekin, ikasleen sindikatuekin, gurasoen elkarteekin, erakunde sindikalekin eta alderdi politikoekin batera, hala nola PSOE alderdi sozialista, Ezker Batua, Podemos eta Kataluniako Esquerra Republicana, eta haien babesarekin.

Lehen azaldutako guztiarengatik, IRABAZI-ARRASATE udal taldeak (Ezker Anitza-IU, Equo e Independientes) proposatzen dio udalaren osoko bilkurari akordio hauek hartzea:

AKORDIOAK:

1.- Premiaz eskatzea Estatuko gobernuari eta Eusko Jaurlaritzari bultzatu dezan hezkuntza itun bat, adostua hezkuntza komunitatearekin, eta, hortaz, oinarritua egongo dena oinarrien agiriarekin, hezkuntza lege berri bat egiteko.

2.- Mozio hau helaraztea Estatuko gobernuari, Eusko Jaurlaritzari eta diputatuen kongresuko eta senatuko talde parlamentariei.

**A.EZKURRA (EAJ-PNV):**

Guk bai mozio honetan eta datozen hurrengoko bi mozioetako berdina esango nuke. Orduan behin esango dut ez dudalako errepikatu nahi eta ez dut inor aspertu nahi, hau da, gai guztiak

udalbatzar honetara datozen gai guztiak udal gobernu honek EAJk errespetu osoz hartzen ditu eta horrela hartzen ditugu. Gaur eta beti.

Eta ez gara edukietan sartuko mozio honen ezta hurrengoko bien edukietan ze ziur gaude guztiak direla gai garrantzitsuak udalbatza honetan edo dagokion beste momentu batzuetan tratatzeko baina bai uste dugu ez dela serioa aurkezten dituen alderdi politikoak udalbatza honetan ez egotea eta ezin bada egon agian hobe litzake beste momentu batetan beste esparru batetan, beste organu batetan hau da dauzkagu organu ezberdinak gaiak tratatzeko beraz, mozio honetara eta hurerngo bietara gure alderdiaren bozka ezezkoa izango da.

**E.BARBERENA (EH-BILDU):**

EH-bildutik konpartitzen dut Anuskakin egoera berezi xamarra dela ez egotea hementxe mozioa aurkezten dauena baina gu gaia irakurri eta aztertuta gu abstenitu egingo gara batez ere planteatzen dan akordioarekin ez dugulako argi ikusten eta kasu honetan da eskatzen dena dena nolabaiteko akordio bat gobernu zentralaren eta eusko Jaurlaritzaren artean eta guk uste duguna da hemen behintzat EH-Bilduren demanda dela burujabetzan pausoak ematea eskumen osoa guk izatea eta hezkuntza guztiz euskaldunen esku egotea ze uste dugu Madril dela besteak beste Parisekin batera ditugun hezkuntza arazo askoren iturria. Horregatik ez dugulako horrekin bat egitea nahiz eta testuko beste hainbat gauza konpartitu abstenitu egingo gara.

**O.GARCIA (PSE-EE):**

Bien nuestro partido evidentemente va a apoyar la moción es verdad que es una situación un poco curiosa es verdad que me hubiese encantado que estuviese Juan Luis que es el que ha metido la moción para poder defenderla y para poder debatir con él. No está, pero señoras y señores el tema es serio el tema es extremadamente serio estamos hablando de la educación que reciben nuestros hijos y nuestras hijas estamos hablando de una ley de educación que se aprobó por parte del PP que lo que hace es discriminar, segregar, enseñar a medias…

Yo gracias a dios tuve muy buenos profesores, muy buenos profesores pero hay profesores que no pueden hacer milagros y cuando hay una ley que les impide hacer su trabajo correctamente los que pagan son los alumnos, los que pagan son los alumnos si fuiste tú Amaia fuiste tú, los que pagan son los alumnos y evidentemente a mí eso me preocupa, me preocupa como político, me preocupa como persona y me preocupa muchísimo más como padre.

Yo estoy seguro de que si hubiese un representante del Partido Popular en este ayuntamiento defendería a capa y espada la ley LOMCE y yo estoy seguro de que podríamos tener un debate muy enriquecedor pero a nadie se le escapa esa ley es un corte y pega de leyes anteriores venidas del franquismo. Hemos recuperado la reválida, la reválida a mi no me suena y ya voy pa mayor y a mi ni me suena yo jamás hubiese pensado que en un país en el siglo XXI recuperásemos leyes de los años 60.

Me parece un tema extremadamente interesante complejo y grave pero si es verdad que hay grupos entre los que se cuenta podemos, entre los que cuenta IU, entre los que se encuentra el partido

socialista que estamos intentando cambiar las cosas y estamos intentando cambiarlas desde el dialogo con todos agentes sociales.

A mí me dan igual Eneko si es una ley de Madrid si es una ley de Mozambique a mí lo que importa es que mis hijos tengan una educación buena, de calidad, bilingüe o euskaldun en caso de que así lo quieran los padres y que no haya ninguna cosa que los segregue por origen, ni que el que tenga más derechos que el que tenga menos.

Entiendo que votéis en contra, pero desde luego no lo comparto ni ahora ni nunca me parece más importante la educación de mis hijos que un tema de identidad nacional. Gracias.

**E.BARBERENA (EH-BILDU):**

Aklaratzearren esan dut ez dugula aurka bozkatuko baizik eta abstenitu egingo garela hala ere ikusten dut batzuetan pilotu automatikoak funtzionatzen duela kasu honetan. Ez nik nahiago dut kasu honetan guk erabaki uste dut hobe dela hurbiltasunez erabakitzea eta hobe dela herri batek bere hezkuntzaren jabetza izatea.

**M.UBARRETXENA (Lehendakaria):**

Kontra bozkatuko duguna gu gara. Orduan bozkatzera pasatuko gara.

| | | |
|---|---|---|
| **Bertaratuak** | **20** | |
| **Aldeko botoak:** | **5** | **PSE-EE(3) eta BALEIKE (2)** |
| **Kontrako botoak:** | **8** | **EAJ-PNV(8)** |
| **Abstentzioak:** | **7** | **EH-BILDU (7)** |

**<u>7.- PASAIAKO ZAMAKETARIEN ALDEKO MOZIOA</u>**

IRABAZI-ARRASATE udal taldeak bere bozeramailearen bitartez eta Entitate lokalen organizazioko, Funtzionamenduko eta Erregimen juridikoko Erreglamenduan iragarrita dagoenaren arabera, ondorengo mozioa aurkezte du, Osoko Bilkurak eztabaidatu eta bozkatu dezan.

ARRAZOIEN AURKEZPENA

Zamaketarien sektorea, Estatu osoan 6000 langile baino gehiagoz osatua dagoen aktibitate ekonomiko garrantzitsu bat da. Pasaiako portuan, momentu honetan, ehun langile baina gehiagok lan egiten dute sektore honetan eta legearekiko aldaketen ondorioz ziurgabetasun egoeran aurkitzen dira.

Estatuko gobernuak zamaketarien sektorearen erreforma bat eraman nahi du aurrera eta honek, gehiengoaren kaleratzea eta ETTen bidezko lanaren prekarizazioa ekarriko du. Europako Justizia Tribunalaren sententzia bata betetzera behartuak daudela aitzakiatzat hartuta, ekimen honek, enpresa multinazionalen irabaziak handitzea du helburu bakarra.

Sententzia honek ez du zer ikusirik berez Gobernuak dituen asmoekin. Bitartean, langileak, sektoreari egonkortasuna emango liokeen proposamen bat jarri dute mahai ginean, tribunalaren diktatuarekin bat datorrena eta lan postuak arriskuan jarri gabe sektorea prekarietatetik urrunduko lukeena.

Beharrezko da gogora ekartzea JP Morgan finantziariak urteak daramatzala Gobernuari presionatzen, Espainian, zamaketarien sektorea liberalizatzeko. Aipaturiko entitate finantzariak, bere Asset Management Infraestructure Investment Group dibisioaren bitartez, Noatum kontrolatzen du, eta Europako portuko operadorerik handiena izanik, Estatu Espainiarreko eta Euskadiko portutan lidergoa du.

